## Berrizko Udala

**Erabilera publikoko espazioetan terraza jartzea arautzen duen udal ordenantzaren behin-betiko onarpena.**

2016ko azaroaren 16eko 218. zenbakia duen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu da Erabilera publikoko espazioetan terraza instalaziorako ordenantzaren 15.6 artikulu aldaketaren behinbehineko onarpena eta jendaurrean azaltzeko epea gainditu ondoren, ez da erreklamaziorik aurkeztu. Beraz, aipatu den erabaki horrek behin betiko izaera izango du.

Ordenantzaren argitalpen osoa egingo da.

Berrizen, 2017ko otsailaren 23an.—Alkateak, Rolando Isoird Refoyo

### ERABILERA PUBLIKOKO ESPAZIOETAN TERRAZA JARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

SARRERA

Ordenantza barri honen helburua, Berrizko hiri-eremuan jarduera garapenean eragina izango duten ekimenen barruan sartuko litzateke. Berriz herriari, dinamismo ekonomiko handiagoa emoteko, eta aldi berean, espazio publikoak eta bere hirigintza modu harmoniko eta orekatuan antolatzen saiatuz.

Labur esanda, herritarrentzako modu antolatuan Berriz atsegin, praktiko eta erosoagoa eskaintzea gura da, neguan ere gure udalerriaren gozamen, aprobetxamendu eta bizkortzea bilatuz, ostalaritzako terraza estaliak ezarriz udalerriko espazio estrategikoetan.

Ordenantza barri honekin, beste neurri batzuekin batera, gure hiriguneak suspertzen lagundu gura da, espazio publikoen aprobetxamendu iraunkorra bilatzeko joera duten neurriak ezarriz.

Laburpen gisa, helburua oinezkoentzako espazioa eta espazio publikoa banatzea, instalazioen estetika beren kokalekuen ingurura egokitzea da, Berrizko hirigunea erakargarritasun bereziz hornituz eta bisitariak eta bertoko biztanleriak hautematen duten kalitatea hobetu eta espazio publikoetako girotzean begi-inpaktu handidun instalazio hauek berezko nortasunez hornituz.

### I. TITULUA

### ORDENANTZAREN EZARPENA HELBURUA, IZAERA, EREMUA ETA BAZTERKETAK

**1. artikulua.—*Xedea***

1. Ordenantza honen helburua bide publikoan edo erabilera publikoa duten espazio pribatuetan terraza edo instalazio osagarriak jartzeko erregimen juridiko eta teknikoa xedatzea da, honako hauen babesean: Tokiko Araubideko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985eko legea; Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea; Hirigintzako Diziplinaren Araubidea onetsi zuen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretua; Irisgarritasuna sustatzen duen EAEko abenduaren 4ko 20/1997 Lega; eta 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eta abarren irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onesten dituena.

2. Aurreko atalean aipatutakoaren arabera, terrazatzat ulertzen da, mahaien bilduma (mahai altuak, aulkiak, tabureteak, bankuak eta instalazio osagarriak eguzkitako, toldo, estaldurak, alboetako babes finkoak edo mugikorrak, berogailuak eta abar.) eta sarbide libre eta erabilera publikoa duten eremu publiko edo pribatuetan daudenean, ostalaritzan legeztatutako aldi baterako edo betirako osagarri bezala. Establezimendu handi baten parte denean eta bere lizentziak, ostalaritza osagarriaren funtzionamendu baimena jasotzen duenean.

3. Eragin berberetarako, kanpoko barrak eta antzekoak, orokorrean, jaiak direla-eta, establezimendu publikoen kanpoaldean jar daitez-keen behin-behineko instalazio bezala ulertuko dira.

## Ayuntamiento de Berriz

**Aprobación definitiva de la Ordenanza municipal reguladora de la instalación de terrazas en espacios públicos.**

Publicado en el «Boletín Oficial de Bizkaia» número 218, de 16 de noviembre de 2016, el acuerdo provisional de Aprobación inicial de la modificación del artículo 15.6 de ~~la ordenanza~~ municipal reguladora de la instalación de terrazas en espacios públicos y dado que, transcurrido el plazo de exposición al público, no se han presentado reclamaciones, dicho acuerdo deviene a definitivo.

Se procede a la publicación integra de la ordenanza.

En Berriz, a 23 de febrero de 2017.—El Alcalde,Rolando Isoird Refoyo

### ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA INSTALACIÓN DE TERRAZAS EN ESPACIOS DE USO PÚBLICO

PREÁMBULO

La finalidad de esta nueva Ordenanza se enmarca dentro del objetivo de impulsar iniciativas concretas que redunden en el desarrollo de una mayor actividad en el ámbito urbano de Berriz a fin de propiciar un mayor dinamismo económico y, paralelamente, tratando de ordenar los espacios públicos y su urbanismo de manera armónica y equilibrada.

Se trata, en definitiva, de propiciar de manera ordenada un Berriz más amable, práctico y acogedor para la ciudadanía, buscando el disfrute, aprovechamiento y activación del municipio también en invierno a través de la instalación de terrazas de hostelería cubiertas en los espacios estratégicos del municipio.

Con esta nueva ordenanza se pretende contribuir, junto con otras medidas, a la revitalización de nuestros núcleos urbanos, estableciendo una serie de medidas tendentes a buscar un aprovechamiento sostenible de los espacios públicos.

Como resumen, la pretensión es distribuir el espacio peatonal y público, adecuar la estética de las instalaciones al entorno de sus emplazamientos Berriz y mejorando la calidad general percibida por el visitante y la población local y dotando de personalidad propia estas instalaciones de gran impacto visual en la ambientación de los espacios públicos.

### TÍTULO I

### DE LA APLICACIÓN DE LA ORDENANZA OBJETO, NATURALEZA, ÁMBITO Y EXCLUSIONES

**Artículo 1.—*Objeto***

1. Es objeto de esta Ordenanza establecer el régimen jurídico y técnico de la instalación en vía pública o en espacios privados de uso público de terrazas e instalaciones complementarias al amparo de lo dispuesto en la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, Real Decreto 2187/1978, de 23 de junio por el que se aprueba el Reglamento de Disciplina Urbanística, Ley 20/1997, de 4 de diciembre, del País Vasco sobre promoción de la accesibilidad, Decreto 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, etc.

2. A los efectos de lo señalado en el apartado anterior, se entienden como terrazas al conjunto de las mesas, mesas altas, sillas, taburetes, barriles o bancos, y de sus instalaciones complementarias, fijas ó móviles, tales como sombrillas, toldos, cubiertas estables, protecciones laterales, alumbrado, dotaciones de calor, etc., que ubicadas en espacios públicos o privados de acceso libre y uso público, sirven de complemento temporal o continuo a un establecimiento legalizado de hostelería, así como cuando forme parte de un establecimiento mayor, cuando su licencia recoja expresamente la autorización de funcionamiento de la hostelería complementaria.

3. A los mismos efectos, se entienden como barras exteriores y similares las instalaciones temporales que, generalmente con motivo de fiestas, se permite colocar en el exterior de establecimientos públicos.

cve: BAO-BOB-2017a046

**2. artikulua.—*Izaera juridikoa***

1. Bide publikoaren okupazioak eta aprobetxamenduak edozeinentzako erabilera bereziko kategoria juridikoa dute, eta jabetza eskubiderik gabe eta besteei kalterik egin barik emoten dira. Horiek erabiltzeko, aurrez, udalaren lizentzia behar da, ordenantza honetan ezarritakoaren arabera emongo dena.

2. Gainera, lizentziak prekarioan emongo dira eta interes publikoagatik ezeztagarriak dira kalte-ordainerako eskubiderik gabe. Partikularrak ez du baimena emoteagatik eskubiderik izango, beraz, baimena emotea eskatu ahalakoa da, hartzen den ebazpenaren beharrezko justifikazioari kalterik egin gabe.

3. Baimendu daitezkeen bide publikoaren okupazio-aldiak udalak antolatutako jarduera turistiko edo jai-jarduerak edo lan eta/edo jarduera publikoak egiteko aldatu ahal izango dira; halaber, beste interesdun batzuek dituzten eskubideei dagozkien jarduerak burutu behar badituzte eta horien baimena administrazio honi badagokio ere aldatu ahal izago dira.

**3. artikulua.—*Eremua***

1. Ordenantza hau erabilera publikoa duten espazio guztiei aplika dakieke bai titulartasun publikodunei, bai titulartasun pribatudunei. Erabilera publikoaren izaera, izatezko egoerak nahiz indarreko plangintzaren zehaztapenen aplikazioaren arabera zehaztuko da.

2. Eremu publikoko guneak okupatzeko erak sistematizatzean, kategoria hauetan sailkatzen dira:

— Ibilgailu zirkulazioa duten kale espaloiak.

— Oinezken kaleak.

— Aldi bereko izaera duten kaleak.

— Arkupeak.

**4. artikulua.—*Baldintzak***

Terraza jar dezakete irekitze lizentzia duten ostalaritza titularrek bakarrik edo gutxienez ostalaritza jardueraren funtzionamendurako komunikazio ekintza osatu dutenek.

II. TITULUA

## TERRAZAK JARTZEA

I. KAPITULUA

### INSTALAZIOAREN BALDINTZAK

**5. artikulua.—*Instalazioaren baldintza orokorrak***

1. Orokorrean, 1,50 metro baino txikiagoak diren mahai, aulki, eguzkitako, paperontzi, berogailu eta alboko babesak baino ez dira onartuko, hala nola, ordenantza honetan zehaztutako ezaugarriak dituzten toldoak.

2. Onartu ez diren instalazioak ezingo dira jarri, eta bereziki zaindu beharko dira instalazioaren neurriak.

3. Araudi honetatik kanpo geratzen dira honako lokal hauek: ikuskizun-, zine-, jai- eta joko-aretoak, eta billarrak, txokoak, elkarte gastronomikoak eta gazte-lokalak.

4. Halaber, debekatuta dago, bide publikoan instalatuko den terrazan honako instalazio hauek ezartzea:

a) Ura eta/edo saneamenduaren hornidurarako elementuak.

b) Edozein produktu mota saltzen duten makinak eta edari, elikagaiak prestatzeko instalazio osagarriak.

c) Irudia ikusarazten duen eta/edo soinuak entzunarazten dituzten aparatuak elementu finko moduan instalatzea; hau da, musika ekipoak, bozgorailuak, telebistak edo beste edozein (informatika ekipoak, karaokeak, eta abar).

**Artículo 2.—*Naturaleza jurídica***

1. Las ocupaciones y aprovechamientos de la vía pública tienen la categoría jurídica de uso común especial y se otorgan salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de tercero y requieren para su ejercicio licencia previa municipal que se concederá de acuerdo con lo previsto en la presente ordenanza.

2. Se entienden, además, otorgadas en precario y son revocables por razones de interés público sin derecho a indemnización. El particular no ostenta derecho alguno a la concesión de la autorización, por lo que su otorgamiento es discrecional sin perjuicio de la necesaria justificación de la resolución que se adopte.

3. Los periodos de ocupación de suelo público que pudieran autorizarse podrán verse modificados con ocasión de la realización de actividades turísticas o festivas, realización de obras y/o actividades públicas organizadas por el Ayuntamiento; asimismo, podrán verse modificadas si resultase precisa la realización de actividades por otros interesados correspondientes a derechos que ostenten cuya autorización corresponda a esta administración.

**Artículo 3.—*Ámbito***

1. La presente Ordenanza es aplicable a todos los espacios de uso público, sean de titularidad pública o privada. La condición de uso público vendrá determinada en función tanto de la situación de hecho, como por aplicación de las determinaciones del planeamiento vigente.

2. Con el fin de sistematizar los modos de ocupación de los espacios de uso público, los espacios urbanos se clasifican en las siguientes categorías:

— Aceras en calles con circulación rodada.

— Calles Peatonales.

— Calles de coexistencia.

— Soportales.

**Artículo 4.—*Requisitos***

Solamente podrán instalar terrazas o veladores de hostelería los titulares de una licencia de apertura, o quienes hayan completado el acto de comunicación previa para el funcionamiento, de una actividad hostelera.

TÍTULO II

## DE LA INSTALACIÓN DE LAS TERRAZAS

CAPÍTULO I

### CONDICIONES DE LA INSTALACIÓN

**Artículo 5.—*Condiciones generales de la instalación***

1. Como norma general sólo se admitirá la instalación de mesas, sillas, sombrillas, papeleras, estufas, protecciones laterales móviles de hasta 1,50 metros de altura, y toldos con las características descritas en la presente Ordenanza.

2. No podrán realizarse instalaciones distintas de las expresamente autorizadas, prestando especial atención a sus dimensiones.

3. Queda prohibida la instalación de terrazas vinculadas a los siguientes establecimientos: salas de espectáculos y cines, salas de fiestas, sala de juegos y billares, txokos, sociedades, y locales de jóvenes.

4. Queda igualmente prohibida la instalación en vía pública en el servicio de la instalación de terraza de los siguientes elementos:

a) Acometidas de suministro de agua y/o saneamiento.

b) Máquinas expendedoras de cualquier clase de producto y las instalaciones auxiliares de preparación de bebidas y/o comidas.

c) Instalaciones como elementos fijos de aparatos reproductores de imagen y/o sonido, tales como equipos de música, altavoces, televisores o de cualquier otra índole (equipos informáticos, karaokes, etc.).

cve: BAO-BOB-2017a046

5. Instalazioak, oinezkoentzako gutxieneko tartea bermatu behar du modu iraunkorrean, ordenantza honetan adierazitakoaren arabera.

Oinezkoen bide hau, zabaldu daiteke udal teknikariak horrela baderitzo eta bertatik pasatzen den oinezko kopuruak horrela eskatzen badu.

6. Ordenantza honetan eremu bakoitzerako ezarritako muga partikularren kalterik gabe, 12,00 metro x 4,80 metroko gehienezko okupazioa ezartzen da, terraza instalazio lizentziarako.

7. Terrazak, gehienez, jardueratik 20 metrora jarriko dira, segurtasun-arazoak tarteko beste ezer ikusten ez bada.

8. Berogailuak, ezingo dira eraikinaren fatxadari itsatsi. Berogailuak elementu mugikorrak izango dira, edo alboetako babesetan lotuko dira.

9. Terraza osatzen duten elementu mugikorrek (mahaiak, aulkiak eta abar) ez dute, inolaz ere, hiri-altzari publikoen erabilera oztopatuko (eserlekuak, paperontziak, baranda, eta abar).

10. Antzeko hiriguneetan, terraza pilaketa egon ezkero, Udalak pareko altzariak eskatu ditzake terraza guztientzat. Instalazioa bere osotasunean hartuz eta estetika baldintzak aztertuz. Horretarako, bertako ostalariek, modu bakarrean edo taldean, dagokien kokapen-eremuarekin lotutako proposamena/k aurkeztuko dizkiote udalari, eta udala izango da ostalariekin batera, interes orokorraren mesedetan egokiena aukeratuko duena.

Dena den, adostasunik ez badago, udalak hiri-altzarientzako baldintza tekniko eta estetiko egokienaren gaineko erabakia hartzeko eskumena izango du.

11. Terrazen funtzionamendu ordutegia amaituta, altzariak (mahai, aulkiak eta abar), bide publikotik baztertuko dira eta lokal barruan edo biltegi batean gorde. Babes perimetral finkoa eta estaldura egonkorra duten terrazek, barruan izango dituzte, lotuta, ez mugitzeko.

12. Baimendutako azaleratik kanpo gelditzen den bide publikoa ez da aulki, mahai, eguzkitako edo beste elementu osagarriekin oztopatuko.

13. Ez da udal zerbitzu, ondasun edo obrarik kaltetuko. Terraza kenduta, zoladura hondatuta balego, astebeteko epean konpondu beharko da.

14. Terrazak okupatzen duen espaloi eta bide publikoak, garbi egongo dira uneoro eta titularrak garbituko du okupatutako azalera hori. Instalazioko elementuen mantenu, estetika, garbiketa arazoren bat egon ezkero, instalazio baimena kenduko da. Aipatutako baldintzak bete behar dira instalazioko elementu guztietan eta zaintza, garbiketa egokia izan behar dute beti.

### 6. artikulua.—*Egitura finko bidezko estalkia*

1. Ordenantza honen artikuluen arabera mugatutako espazioa, erraz ken daitezkeen behin-behineko elementuekin estali daiteke, lurzoruan josi daitezkeenak, eta horrez gain, badlintza hauek bete behar dituzte:

a) Egitura egonkor bidezko estalkiak, zutabeak edo egitura bertikala alboko eraikinaren beheko solairuko fatxadaren lerrotik (2) metro bereizten badira bakarrik jarri ahal izango dira. Estalkia, eraikinaren fatxadaren lerrotik gutxienez (2) metrora egongo da.

b) Estalkiak, gehienez 3,20 metroko altuera izango du.

c) Estalkiaren instalazioan irteten diren elementuen beheko ertza, 2,20 metro baino altuagoa izango da.

5. La instalación deberá garantizar, permanentemente y en todo caso, un itinerario peatonal según lo señalado en la presente ordenanza.

Este paso peatonal puede ser ampliado a juicio razonado del técnico municipal cuando lo requiera la intensidad del tráfico de viandantes.

6. Sin perjuicio de las limitaciones particulares para cada tipo de espacio establecido en la presente ordenanza, se establece una limitación máxima de ocupación de 12,00 metros x 4,80 metros por licencia de instalación de terraza.

7. Las terrazas podrán instalarse a una distancia máxima de 20 m de la actividad, salvo que por motivos de seguridad sea desaconsejable su implantación.

8. Las estufas, no podrán instalarse ancladas a la fachada del edificio, deberán ser elementos móviles o anclarse a las protecciones laterales.

9. Los elementos móviles que componen la terraza (mesas, sillas, etc.) en ningún caso obstaculizarán la utilización del mobiliario público urbano (bancos, papeleras, barandillas, etc.) por parte de viandantes que no vayan a hacer uso de la misma.

10. En ámbitos urbanos homogéneos en los que exista una concurrencia de terrazas, el Ayuntamiento podrá exigir la instalación de un mobiliario uniforme para todas las terrazas, estudiando la instalación conjuntamente y con condiciones específicas de armonía estética. A tal efecto, los establecimientos hosteleros afectados deberán presentar, de forma individual o conjunta, la propuesta o propuestas concernientes a su zona de ubicación ante el Ayuntamiento, que será quien de mutuo acuerdo con los citados decidirá lo más adecuado a los intereses generales.

En todo caso y de no producirse dicho acuerdo, el Ayuntamiento tendrá la facultad de decidir las condiciones técnicas y estéticas más apropiadas para el citado mobiliario urbano.

11. Una vez finalizado el horario de autorización de funcionamiento de la terraza, el mobiliario (mesas, sillas, etc.), deberá ser retirado de la vía pública y depositado en un almacén o en el interior del local. En las terrazas con protección perimetral anclada y cubierta estable, el mobiliario podrá ser apilado en el recinto formado por la terraza, bien sujeto para que no pueda ser desplazado.

12. En ningún caso podrá ocuparse la vía pública con pilas de sillas, mesas, sombrillas o cualquier otro elemento auxiliar de la terraza, fuera de la superficie autorizada.

13. No podrán afectarse bienes, obras o servicios municipales. Una vez retirada la terraza, si hubiese resultado afectado el pavimento por la instalación, deberá reponerse en un plazo máximo de una semana.

14. La vía pública y aceras ocupadas por la terraza deberán mantenerse en permanente estado de limpieza correspondiendo al titular de la autorización la limpieza de la superficie ocupada. La falta de mantenimiento de los elementos de la instalación o el deterioro en las condiciones de ornato y limpieza implicará la retirada de la autorización y, en consecuencia, de la instalación. El mantenimiento de las condiciones citadas alcanza a todos sus elementos que deberán presentar en todo momento un adecuado estado de conservación y limpieza.

### Artículo 6.—*Cubriciones mediante estructura estable*

1. El espacio delimitado conforme a los artículos de la presente ordenanza, podrá cubrirse con elementos de carácter provisional, fácilmente desmontables y que podrán ser anclados al suelo, que reúnen además, los siguientes requisitos:

a) Los cubrimientos provisionales, únicamente podrán instalarse si sus postes, o estructura vertical, se separan en más de dos (2) metros de la línea de fachada en planta baja de los edificios junto a los que se ubiquen. La cubierta , deberá separase al menos dos (2) metros de la alineación de la fachada del edificio.

b) La máxima altura que podrá alcanzar la cubierta será de 3,20 metros.

c) El borde inferior de cualquier elemento saliente en la instalación del cubrimiento, deberá superar la altura de 2,20 metros.

cve: BAO-BOB-2017a046

d) Espaloiaren kanpoaldeko ertza eta eskumako edozein oinaren arteko tartea, gutxienez (30) zentimetrokoa izango da, babes baranda dagoanean izan ezik. Orduan 10 zentimetroko tartera murriztu daiteke.

e) Instalazioaren alboetako babesek edo perimetrokoek ordenantza honen 7. Artikuluan ezarritakoa beteko dute.

2. Estalkiek, gainera, diseinu irekia izango dute. Ikusmen-iragazkortasunak lehentasuna izango du eta ez dira herriaren pertzepziorako eragozpen izango eta ez dute edukiontzi konpaktu gisa funtzionatuko. Egituraren elementuak, ahal dela, altzairuzkoak (herdoilezina, burdinurtua...) izango dira eta akaberan pintura izanez gero, pintura oxiron motakoa edo herriko espazioko altzarietako esleitutakoa izango da.

3. Udal-agintaritza eskumendunak estaldura-eskaera ukatu dezake ondoko kasu hauetan:

a) Bide-segurtasunerako kaltegarriak direnean (ikuspena gutxitzea edo gidarientzako distrakzioa eta abar) edo oinezkoen trafikoa nabarmenki zailtzen duenean.

b) Inguruko eraikin eta lokalei eragiten dutenean (induskeeta, eta abar).

c) Inguruarekin argi eta garbi desegokia denean edo bat ez datorrenean edo hiri-paisaia egoki ikustea zailtzen duenean.

d) Jabetza pribatuko eta erabilera publikoko espazioetan jarri nahi direnean.

4.- Estalki egonkorra jartzeko proiektuak, terraza-eremu baimengarrietan bakarrik baimenduko dira eta ez dituzte luzeran 12 metro eta zabalean 4,80 metro gaindituko.

### 7. artikulua.—*Alboetako eta perimetroko babesak*

1. Terrazaren mugetan alboetako babesak nahitaez instalatu beharko dira instalazioak hartutako eremuak oinezkoentzako bideak hartzen dituenean eta espazio publikoaren erabileran gatazka sor daitekeela aurrez ikus daitekeenean. Tabureterik gabeko upelak erabiltzeko ez da alboetako babesik behar.

2. Terrazaren mugetan perimetroko babesak nahitaez instalatu beharko dira espazioa jositako egitura egonkor bat duen estalki batek hartzen duenean.

3. Terrazaren mugetan perimetroko babes josiak nahitaez instalatu beharko dira bide aldera terrazak aparkatzeko lerroa hartzen duenean.

4. Terrazak ibilgailuen bidearekin duen mugan perimetroko babes josiak nahitaez jarri beharko dira ibilgailuen zirkulaziotik bereizteko aparkatzeko lerro bat ez dagoen kasuetan.

5. Nahitaezkoa izango da batera etenik gabe elkarren alboan dauden bi terrazen artean alboetako babesak jartzea. Alboetako babesa bi titularrak ados jarrita ezarriko da. Alboetako babesa nork jarri behar duen adosten ez badute, azken eskatzaileak instalatu beharko du, bere kontura.

6. Instalazioa hiriko altzarien elementuen artean badago eta elementu horiek alboetako babesen funtzioa ondo betetzen badute, alboetako akotazioak ez jartzeko aukera egongo da. Elementu horiek landareontziak eta abar izan daitezke eta aurreko ataletan ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

7. Nahitaezko perimetroko babesak josiak izango dira beti.

8. Nolanahi ere, beti instalatu ahal izango da alboko edo perimetroko babesa, aurretik interesdunak hala eskatzen badu eta ondorengo baldintza hauek betetzen baditu:

a) Alboetako babesek mugikorrak eta inguruko baldintzetarako egokiak izan behar dute eta forma hauek izan ditzakete:

— Loreontziekin, terraza mugatzen duten elementu bezala eta oinarri finkoa eta sendoa izanik, egonkortasuna bermatzeko.

— Itsuekin, zeharrargiekin eta gardenekin eraikitako manparak, n terrazak mugatzeko elementu gisa eta 1,50 metroko altueran.

d) La distancia entre cualquier pie derecho y la arista exterior del borde de la acera no será inferior a treinta (30) centímetros m salvo cuando exista barandilla de protección, y en cuyo caso podrá reducirse a diez (10) centímetros de ésta.

e) Las protecciones laterales o perimetrales de la instalación atenderán a lo dispuesto en el artículo 7 de la presente Ordenanza.

2. Las cubriciones presentaran, además un diseño singular abierto en el que habrá de primar la permeabilidad de vistas, sin que supongan obstáculo a la percepción del municipio, ni operen a modo de contenedor compacto. Los elementos estructurales serán preferentemente de acero (inoxidable, fundición...) y, en el supuesto de acabado en pintura, éste será del tipo oxiron o del asignado para el resto del mobiliario urbano del municipio.

3. La autoridad municipal competente podrá denegar la solicitud de cubrición en cualquiera de los supuestos siguientes:

a) Cuando supongan algún perjuicio para la seguridad viaria (disminución de la visibilidad, o distracción para los conductores, etc.) o dificulte sensiblemente el trafico de peatones.

b) Cuando pueda afectar a la seguridad de los edificios o locales próximos (evacuación, etc.).

c) Cuando resulte formalmente inadecuada o disconforme a su entorno, o dificulte la correcta lectura del paisaje urbano.

d) Cuando pretendan instalarse en espacios de propiedad privada y uso público.

4. El proyecto de cubierta estable solo se autorizará sobre el espacio de terraza autorizable, y en ningún caso superara los 12 m de longitud y los 4,80 metros de ancho.

### Artículo 7.—*Protecciones laterales y perimetrales*

1. Será obligatoria la instalación de protecciones laterales en los límites de la terraza cuando el área ocupada por la instalación interfiera con itinerarios peatonales y la Ordenanza municipal reguladora de la instalación de terrazas y veladores en la vía pública pueda anticipar un posible conflicto de utilización del espacio público. La utilización de barriles sin taburete no precisa de protección lateral.

2. Será obligatoria la instalación de protección perimetral en los límites de la terraza cuando el espacio esté cubierto por un cubrimiento de estructura estable anclada.

3. Será obligatoria la instalación de protección perimetral anclada hacia la calzada en los límites de la terraza cuando ocupe banda de aparcamiento.

4. Será obligatoria la instalación de protección perimetral anclada en el límite de la terraza con calzada rodada, cuando no haya una banda de aparcamiento que la separe de la circulación del tráfico.

5. Será obligatoria protección lateral entre dos terrazas adyacentes sin solución de continuidad. La protección lateral se colocará mediante acuerdo entre ambos titulares. En caso de no llegar a un acuerdo sobre quién debe instalar la protección lateral, será el último solicitante quien deba instalarla a su cargo.

6. Podrá dispensarse de la acotación lateral en el caso de que la instalación se sitúe entre elementos de mobiliario urbano que realicen convenientemente esta función, tales como jardineras, etc. que cumplan las condiciones de los apartados anteriores.

7. Las protecciones perimetrales obligatorias serán siempre ancladas.

8. En cualquier caso, siempre podrá instalarse una protección lateral o perimetral, previa petición del interesado, y siempre que cumplan las siguientes condiciones:

a) Las protecciones laterales deber ser en general móviles y, adecuadas a las condiciones del entorno, y pueden disponer las siguientes formas:

— Maceteros con plantas como elementos delimitadores de la terraza, con una base lo suficientemente estable y consistente para garantizar su estabilidad.

— Mamparas construidas a base de elementos ciegos, traslúcidos y transparentes con franjas que identifiquen visualmente la existencia de la misma, a una altura de 1,50 m.

cve: BAO-BOB-2017a046

b) Ezingo dituzte terraza instalatzeko ezarritako mugak gainditu eta altuera ez da izango zero koma laurogei (0,80) metro baino txikiagoa edo metro bat eta berrogeita hamar (1,50) zentimetro baino handiagoa. Alboetan edo terrazak hartutako espazioaren perimetroan jarri ahal izango dira eta libre utzi beharko da ostalaritzako jarduera dagoen lokalaren gertueneko terrazaren aldea.

c) Alde itsua ezingo da zero koma laurogei (0,80) metro baino handiagoa izan eta altueraren gainerako tokian zeharrargitsuak edo gardenak izan beharko dute.

9. Nahitaezkoak diren alboetako eta perimetroko babesak, lurrera josteko berariazko baimenik ez dutenak, kendu egin beharko dira gainerako altzariekin batera.

**8. artikulua.—*Espazio inklinatuak edo aparkatzeko espazioak hartzeko oholtzak***

1. %6tik gorako malda dagoen espazioetan terrazen azaleraren zati bat edo azalera osorik altxatzen duten oholtzak, taulak edo plataformak jarri ahal izango dira, instalazioa mailakatu behar duten tokietan edo aparkatzeko tokietan terraza jartzea baimendu daitekeenetan, lurra espaloiaren mailara altxatzeko.

2. Oholtza egiteko erabilitako materialek instalatuta egongo den aldian behar bezala erabiltzeko bezain sendoak eta ez irristatzeko modukoak izan beharko dute. Diseinu eta tratamendu kromatiko bateratua izan beharko du, inguru horretarako egokia.

3. Oholtzak edo plataformak, aparkalekuen gainean terrazak instalatzeko erabiltzen badira, ondorengo ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

— Plataforma luzetara jarriko da espaloiaren ertzaren alboan eta bidearen ertzera eta alboko plazetara, gutxienez 30 cm-ko distantzia izango du.

— Oholtza ura husteko sistemarekin egin beharko da eta sistema horrek ez dio trabarik egin beharko urbanizazioan lehendik dagoen bilketa-sistemari.

— Perimetroko babes josia izango du, hartutako gunea babesteko. Perimetroko babesaren ordez baranda bat jarri ahal izango da.

— Horretarako egokitutako espazioan altzariak eta eguzkitakoak jarri ahal izango dira.

— Eguzkitakoek hartzen duten tokiak ezingo du, inolaz ere, bidea hartu, ezta inguruko aparkalekuena ere.

— Horrelakoetan, ezin da egitura egonkorreko estalkirik jarri.

— Irisgarritasuna.

**9. artiklua.—*Ibilgailuen zirkulazioa dagoen kaleetako espaloietan instalazioek hartuko duten tokia***

1. Espaloiak gutxienez, hiru metro eta erdiko (3,50 m) zabalera izango du.

2. Instalazioak oinezkoentzako bide bat bermatu behar du fatxadaren alboan (1,80 m) , oztoporik gabe

3. Oinezkoentzako bide librea zabaldu egin daiteke oinezkoen atzera-aurrera handiak hala eskatzen duelako, Udal teknikariak hala irizten badio.

4. Luzetara jarriko dira espaloiaren ertzean eta espaloitik, gutxienez, hogeita hamar (30) zentimetrora, jendea hor dauden ibilgailuetan sartu eta horietatik ateratzen denean, trabarik ez egiteko. Ibilgailuak baterian aparkatuta daudenean, terrazaren eta espaloiaren ertzaren arteko tartea, gutxienez, hirurogei (60) zentimetrokoa izango da.

5. Terrazak ibilgailuen bidearekin duen mugan perimetroko babes josiak nahitaez jarri beharko dira ibilgailuen zirkulaziotik bereizteko aparkatzeko lerro bat ez dagoen kasuetan.

6. Oinezkoen pasabideen, etxebizitzen atarien, autobus eta taxi-geltokien aurrean jarri ahal izango dira, espaloiaren eta terra-

b) No podrán rebasar los límites autorizados de la instalación de la terraza, y su altura no será inferior a cero con ochenta (0,80) metros ni superior a uno con cincuenta (1,50) metros y podrán colocarse en los laterales o perimetralmente al espacio ocupado por la terraza, dejando siempre libre el frente de la terraza más próximo al local que albergue la actividad hostelera.

c) La parte ciega no podrá alcanzar más de cero con ochenta (0,80) metros, debiendo ser en el resto de la altura traslúcidos o transparentes.

9. Las protecciones laterales y perimetrales que no sean obligatorias, y cuyo anclaje al suelo no haya sido expresamente autorizado deberán retirarse con el resto del mobiliario.

**Artículo 8.—*Tarimas para ocupación de espacios inclinados o espacios de aparcamiento***

1. Podrán colocarse estrados, tarimas o plataformas que eleven en parte o en la totalidad la superficie destinada a las terrazas en aquellos espacios con una pendiente superior al 6%, que deban escalonar la instalación o cuando se pueda autorizar la instalación de terraza sobre plazas de aparcamiento, con el fin de elevar el suelo hasta la cota de la acera.

2. Los materiales utilizados para la fabricación de la tarima deberán ser suficientemente resistentes para su efectivo uso durante el periodo en el que permanecerá instalada y acabado antideslizante. Deberá tener además un diseño y tratamiento cromático unitario, adecuado a su entorno.

3. Las tarimas o plataformas, en el caso de servir para la instalación de terraza sobre plazas de aparcamiento, deberán disponer las siguientes características:

— La plataforma se dispondrá longitudinalmente junto al borde de la acera, separándose de los extremos más próximos al borde de la calzada y a las plazas colindantes un mínimo de 30 cm.

— Deberá proyectarse la tarima con el correspondiente sistema de evacuación de agua que no interfiera con el sistema de recogida preexistente en la urbanización.

— Dispondrá de protección perimetral anclada, con el fin de proteger la zona ocupada. La protección perimetral podrá ser sustituida por una barandilla.

— El espacio habilitado para tal fin podrá ser ocupado por mobiliario y sombrillas.

— El espacio ocupado por las sombrillas no podrá en ningún caso invadir el espacio de la calzada, ni de las plazas de aparcamiento colindantes.

— No se permite que este tipo de ocupación disponga de cubrimiento estructura estable.

— Accesibilidad.

**Artículo 9.—*Ocupación de las instalaciones en aceras de calles con circulación rodada***

1. No podrán colocarse en aceras que tengan una anchura inferior a tres metros y medio (3,50 m).

2. La instalación deberá garantizar un itinerario peatonal libre de obstáculos de uno ochenta (1,80 m) metros junto a fachada.

3. El paso peatonal libre podrá ser ampliado a juicio razonado del técnico municipal, cuando lo requiera la intensidad del tráfico de viandantes.

4. Se dispondrán longitudinalmente junto al borde de la acera, y separadas de él un mínimo de treinta (30) centímetros, para no entorpecer la entrada y salida de personas de los vehículos estacionados. Cuando el estacionamiento de vehículos se realice en batería, la separación de la terraza respecto del borde de la acera será de un mínimo de sesenta (60) centímetros.

5. Será obligatoria la instalación de protección perimetral anclada en el límite de la terraza con calzada rodada, cuando no haya una banda de aparcamiento que la separe de la circulación del tráfico.

6. Podrán instalarse frente a pasos de peatones, portales de las viviendas, paradas de autobuses y taxis únicamente en aque-

cve: BAO-BOB-2017a046

zaren artean oinezkoentzako oztoporik gabeko banda bat eta (1,80) metroko bide bat gelditzen den kasuetan bakarrik.

7. Behar bezala arrazoitutako salbuespenezko egoerengatik terraza edo mahaitxoak establezimenduaren fatxadaren albоan jartzea komeni bada, horretarako baimena eman ahal izango da Bulego Teknikoak proposatutako diseinua eta baldintzak aintzat hartuta.

8. Eskatutako gutxieneko zabalerarik ez badago eta izanda ere terraza ohiko tokietan jarri ezin izateko beste egoera batzuk egon ezkero, terrazak aparkatzeko marraren gainean oholtza edo plataforma gainean jarrita instalatzeko aukera izango da, aurretik mugikortasunaren arduradun den pertsonak zirkulazioari eta ibilgailuak aparkatzeari sortuko liokeen eragina aintzat hartuta aldeko txostena egiten badu. Baimena denboraldi-artera murrizteko aukera dago, interesdunak hori eskatu ez arren.

Horrelakoetan, ezingo dira ilaran aparkatzeko bi toki baino gehiago hartu, ezta baterian aparkatzeko lau toki baino gehiago ere. Ezingo da ezinduentzako aparkaleku kopurua murriztu, beraz, behar izanez gero, horiei dagokien seinale bertikalak zein horizontalak baldintza berdineko inguruko beste aparkaleku batera eramango dira, aurretik mugikortasun arloko arduradunak horri buruzko txostena egin ondoren.

9. Instalazioa 7. artikuluan ezarritako moduan babestu eta zedarrituko da.

10. Terrazen instalazio osagarri hauek baimenduko dira:

— Estaldura, egitura egonkorrarekin.

— Eguzkitakoak.

— Eguzki-oihalak, oinezkoentzako fatxadaren albotik igarotzeko bide bat utzi ezin den salbuespenezko kasuetan bakarrik eta hirigintzako araudiak baimendtzen badu.

— Berotasuna emateko gailuak, definizioan ezarritako mugekin.

**10. artikulua.—*Instalazioen okupazioa oinezkoentzako kaleetan***

Kapitulu honetan jasotako muga nagusien kalterik gabe, terrazaren kokapena kalearen zati bakoitzaren ezaugarrietara egokituko da:

1. Ostalaritzako terrazak eta mahaitxoak, mota guztietako altzariekin, gutxienez sei (5) metroko zabalera duten oinezkoen kaleetan eta oinezkoentzako bide bat libre uzteko moduan onartuko dira eta babes zibileko ibilgailuei, anbulantziei, garbiketarako ibilgailuei eta abarri ere bidea libre uzteko moduan jarriko dira. Gutxienez, hiru koma berrogeita hamar (1,80) metro utziko dira horretarako.

2. Oinezkoentzako bide librea zabaldu egin daiteke oinezkoen atzera-aurrera handiak hala eskatzen duelako, Udal teknikariak hala irizten badio.

3. Terrazetan instalazio osagarri hauek jarri ahal izango dira:

— Estaldura, egitura egonkorrarekin.

— Eguzkitakoak.

— Eguzki-oihalak, oinezkoentzako fatxadaren albotik igarotzeko bide bat utzi ezin den salbuespenezko kasuetan bakarrik eta hirigintzako araudiak baimentzen badu.

— Berotasuna emateko gailuak, definizioan ezarritako mugekin.

4. Behar bezala arrazoitutako salbuespenezko egoerengatik terraza edo mahaitxoak establezimenduaren fatxadaren alboan jartzea komeni bada, horretarako baimena eman ahal izango da Bulego Teknikoak proposatutako diseinua eta baldintzak aintzat hartuta.

5. Instalazio alboak 7. artikuluan aurreikusitakoaren arabera zedarritu eta babestu daitezke.

llos casos en los que quede una banda peatonal utilizable de uno ochenta (1,80 m) metros libres de obstáculos entre el borde de la acera y la instalación que se pretende.

7. Si por circunstancias excepcionales debidamente argumentadas, fuera conveniente la ubicación de la terraza o velador junto a la fachada del establecimiento, podrá autorizarse de acuerdo con el diseño y condiciones que proponga la Oficina Técnica.

8. En caso de no disponer de la anchura mínima, o aun disponiéndola, concurran otras circunstancias que hagan inviable la instalación de la misma en los espacios habituales, se posibilitará la instalación de terrazas sobre tarima o plataforma sobre banda de aparcamiento, previo informe favorable sobre movilidad en relación a la afección al tráfico y estacionamiento de vehículos, debiendo concluir, para poder autorizarse, que no incrementa la problemática en dicha zona. La autorización podría reducirse a temporada media, aunque no fuera esta la solicitada por la persona interesada.

En este caso, no podrán ocuparse más de dos plazas de aparcamiento en línea, ni más de cuatro plazas en batería. No podrá reducirse el número de Plazas de Minusválidos, por lo que, si fuera el caso, deberá trasladarse tanto la señalización vertical como horizontal correspondiente a otra plaza cercana que cumpla las mismas condiciones, previo informe de la persona responsable sobre movilidad.

9. Se podrá acotar y proteger la instalación lateralmente en la forma prevista en el artículo 7.

10. Se permitirán las siguientes instalaciones complementarias de la terraza:

— Cubrimiento mediante estructura estable.

— Sombrillas.

— Toldos, sólo en los casos excepcionales en los que no es viable mantener el itinerario peatonal junto a la fachada, y siempre que lo permita la normativa urbanística.

— Dotaciones de calor, con las limitaciones establecidas en su definición.

**Artículo 10.—*Ocupación de las instalaciones en áreas peatonales***

Sin perjuicio de las limitaciones generales recogidas en el presente Capítulo, las terrazas se sujetarán a las siguientes condiciones de ocupación en función de la situación del local al que pertenezcan:

1. En las calles peatonales con anchura mínima de cinco (5) metros se podrá colocar una instalación de terrazas y veladores de hostelería, con todo tipo de mobiliario de forma de forma que dejen un itinerario peatonal libre de obstáculos en cada alineación de fachada y permitan el paso de vehículos de protección civil, ambulancia, limpieza, etc., con una anchura mínima de uno ochenta (1,80 m) metros junto a fachada.

2. El paso peatonal libre podrá ser ampliado, a juicio municipal razonado del técnico municipal, cuando lo requiera la intensidad del tráfico de viandantes.

3. Se permitirán las siguientes instalaciones complementarias de la terraza:

— Cubrimiento mediante estructura estable.

— Sombrillas.

— Toldos, sólo en los casos excepcionales en los que no es viable mantener el itinerario peatonal junto a la fachada, y siempre que lo permita la normativa urbanística.

— Dotaciones de calor, con las limitaciones establecidas en su definición.

4. Si, por circunstancias excepcionales debidamente argumentadas, fuera conveniente la ubicación de la terraza o velador junto a la fachada del establecimiento, podrá autorizarse de acuerdo con el diseño y condiciones que proponga la Oficina Técnica.

5. Se podrá acotar y proteger la instalación lateralmente en la forma prevista en el artículo 7.

cve: BAO-BOB-2017a046

**11.artikulua.—*Instalazioen okupazioa, espazio libre eta plazetan***

1. Oinezkoentzako ibilbidea bermatuko da, oztopo barik eta zabalera gomendagarria (4) metro eta gutxienez (1,80 m), fatxada lerrokadura bakoitzean eta bertan dagoen hiri altzariekin bat etorriz.

2. Oinezkoen ibilbide librea zabaldu daiteke, udal teknikariak horrela bederitzo, eta oinezkoen kopurua handia bada.

3. Terrazetan instalazio osagarri hauek jarri ahal izango dira:

— Estaldura, egitura egonkorrarekin.

— Eguzkitakoak.

— Eguzki-oihalak, oinezkoentzako fatxadaren albotik igarotzeko bide bat utzi ezin den salbuespenezko kasuetan bakarrik eta hirigintzako araudiak baimentzen badu.

— Berotasuna emateko gailuak, definizioan ezarritako mugekin.

4. Okupatuko den eremuaren banaketa, plaza edo espacio libre horren ezaugarrien arabera egingo da, beti ere erabilera eta bertan dauden establezimenduak kontuan hartuta.

5. Instalazioa, 7. artikuluan ezarritako moduan babestu eta zedarrituko da alboetatik.

6. Behar bezala arrazoitutako salbuespenezko egoerengatik terraza edo mahaitxoak establezimenduaren fatxadaren alboan jartzea komeni bada, horretarako baimena eman ahal izango da Bulego Teknikoak proposatutako diseinua eta baldintzak aintzat hartuta.

